

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

EMAKUNDE

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2023ko deialdia 2
2. Dirulaguntzak, 2023. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sensibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat 5
3. Asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzearen sustapena 7
4. Euskal Autonomia Erkidegoko udal, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak, eta/edo berdintasun-planak prestatu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko 9
5. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko 11



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2023ko deialdia

2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2023. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia arautzen eta onartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdia:

Ebazpena, 2022ko abenduaren 14koa, (EHAA 2022ko abenduaren 29a):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205752e.pdf>

Ematea:

Ebazpena, 2023ko uztailaren 31koa (EHAA 2023ko abuztuaren 28a):

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/08/2304054e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2023ko ekitaldian, ondo definitutako hiru beka-mota dauzkagu oraindik, hiru motatako ikerlanak egiteko diseinatutakoak. Ikerlanaren xedea honako hau da beka-mota bakoitzean:

- 1. mota: gizarte-esparru guztietan balio-aldaketa ekarriko duten eta berdintasunerako eraldaketa soziala bultzatuko duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta faktoreak aztertzea.
- 2. mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko diskriminazioa jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboetan; bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzeari eta segurtasunari dagokienez.
- 3. mota: erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta emakumeen lidergoa eta ahalduak politiko, ekonomiko eta soziala erraztuko duten eta sistema patriarkala aldatzen edo gainditzen lagunduko duten ekimenak eta estrategiak bilatzea.

Horrela, bada, deialdi honen bidez, azterlanen eremu horiek dinamizatu nahi dira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egin daitezten ahalbidetu nahi da. Bekak alor horretan espezialista diren banakoei edo taldeei emango zaizkie, ikerlanen kalitatea bermatzeko eta aipatutako helburuak lortzeko.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko ekitaldian 45 eskabide jaso ziren. Beken % 100 esleitu ziren norgehiagoka-prozeduraren bidez, deialdian ezarritako baremazio- eta prozedura-irizpideen arabera.

-1. motako bekarako 21 eskabide izan ziren; horietatik bat izan zen onuradun, 15 ordezkotako eta 5i ezezkoa eman zitzaion arrazoi ezberdinengatik (eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik, eskaera bikoiztua eta eskatutako dokumentazioa ez zuzentzeagatik). Beka onuradunaren edukia hau da: “El lenguaje como herramienta para el cambio social: Estudio teórico y empírico de las consecuencias del uso del lenguaje inclusivo”.

- 2. motako bekan, 14 eskaera jaso ziren. Horietatik, bat onuradun izan zen, 11 ordezkotako eta 2 ukatu egin ziren (eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik eta eskatutako dokumentazioa ez zuzentzeagatik). Beka onuradunaren gaia hau da: “Proyecto I-MAST: análisis y descripción del riesgo de discriminación y el uso del recursos asistenciales del colectivo de mujeres mastecomizadas”.

-3. motako bekan, 10 eskabide: bat onuraduna, 7 ordezkotako eta 2 ukatu dira (eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik eta eskatutako dokumentazioa ez zuzentzeagatik). Beka onuradunaren gaia hau da: “Maternidades a debate en la producción cultural”.

Beka bakoitzaren iraupena hamar hilabetekoa da, deialdiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera; dena den, aurtun 2024ko ekainean amaituko da ikerlanak entregatzeko epea. Beken indarraldian, bilera batzuk egin dira (2023ko abenduan, 2024ko martxoan) mota bakoitzeko beken onuradunekin, aldi horietan egindako lanen kontrola, segimendua eta ebaluazioa egiteko. Epea amaitutakoan, ikerlan amaitua analizatu eta balioetsiko da, emaitzak eskuratuko dira eta baliagarritasuna eta gizarte-eragina neurtuko dira.

Aurreko deialdietan bezala, aurreikus daiteke deialdiak eragin positiboa izango duela, bai bekadunen prestakuntzari dagokionez, bai ondoriozko ikerketa-lanen zabalkundeari dagokionez. Ikerlanak amaitu ondoren, hedabideei aurkezten zaizkie, Emakunderen webgunean argitaratzen dira eta Emakunderen Dokumentazio Zentroan gordetzen dira. Beken ondoriozko ikerketek, gaiaren espezifikotasuna dela-eta, genero-ikuspegitik eta EA Eren beraren testuinguruan, interes sozial handia pizten dute. Interes hori lehen aurkezpen publikotik harago luzatzen da, lanen kontsultaren bitartez eta egileei elkarrizketak, jardunaldiak, kongresuak eta abar egiteko egindako lankidetzak-etsaeren bitartez.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Beka kop.	3	3
Eskabide kop.	40	45
Prestakuntza jasotako emakume kop.	5	15
Prestakuntza jasotako gizon kop.	2	0
Prestakuntzan interesa izan duten emakume kop.	70	94
Prestakuntzan interesa izan duten gizon kop	15	29
Prestakuntzako eduki espezifikoen kopurua.	3	3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dirulaguntzak, 2023. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat

2.- Araua

EBAZPENA, 2022eko abenduaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio- jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2022an dirulaguntzak emateko deialdia egin eta dirulaguntza horiek arautzen dituen.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205755e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2021eko deialdirako aurreikusitako helburuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

- a. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
- b. Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen egitura-kausak ezabatzea.
- c. Emakumeen aurkako indarkeria eta haren magnitudea ikusaraztea.
- d. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen tolerantzia gutxitzea.
- e. Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarri diren balioak, sinesmenak eta jarrerak aldatzea.
- f. Lanaren eremuan eta etxean emakumeei eta gizonei izendatzen zaizkien rolak aldatzea, rol horiek baitira gaurko gizartean nagusi den desberdintasun-egoeraren "haztegi".
- g. Berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboak sustatzea, bai helduen artean, bai haurren eta nerabeen artean.
- h. Berdintasunaren aldeko hezkuntza hobetzea ikastetxeetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sistemarik onena denez gero.
- i. Herritarrei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari eta mikromatxismoei buruz, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria hasiera-hasieratik identifikatu ahal izateko.
- j. Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeria-jokabideen larritasunari buruz eta gizartearen gaitz hori ikusarazteko premiari buruz.
- k. Bizitza pertsonalean, gizartean, familian eta lanean —alor guztietan—berdintasuna —benetakoa eta eraginkorra— lor dadin sustatzea.
- l. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen gizarte-eragile guztiek parte har dezaten erdiestea.



- m. Emakumeen autonomia sustatzea haien bizitzaren eremu guztietan.
- n. Emakumeen posizio soziala eta ekonomikoa indartzea.
- o. Indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta laneratu daitezten lortzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dirulaguntza hauetara, hirurehun mila euro bideratu dira (300.000 €). Deialdi honetan, eutsi egin zaio proiektu bakoitzeko diruz lagundu beharreko gehienezko zenbatekoari, eta 12.000 euro izango dira; gehienez ere bi proiektutarako dirulaguntza emango zaio erakunde bakoitzari —betiere, proiektu horiek xede desberdina badute—, erakunde eta proiektu gehiagori aukera emateko. 20221ean 78 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 52 proiekturi eman zitzaizen dirulaguntza. 2023an, berriz, 79 proiektu aurkeztu dira, eta 52k jaso dute dirulaguntza. Proiektu horiek oso positibotzat jo ditu Ebaluazio Batzordeak, deialdi honen helburuak eta aurreikusitako gizarte-eragina kontuan hartuta. Elkartek emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako sentsibilizazioaren eta prebentzioaren alde lan egiteko interesa dutela nabaritu da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	40	52



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzearen sustapena

2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baitira 2023ko ekitaldian emango diren dirulaguntzak, asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

Deialdia:

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baitira 2023ko ekitaldian emango diren dirulaguntzak, asoziazionismoa sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte hartzeko. - Legegunea: Euskal Herriko araudia - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2023ko urriaren 5koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena. Honen bidez, aldatu egiten da 2023ko irailaren 15eko Ebazpena, elkartegintza sustatzeko eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan parte har dezaten bultzatzeko 2023ko dirulaguntzak ematen dituenak. [2305163e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu hauekin ari gara lanean:

- Emakumeen antolaketa proaktiboa sustatzea.
- Jarduerak eginez emakumeen partehartzea sustatzea bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kultureko esparru guztietan parte har dezaten.
- Emakumeen elkartegintza sustatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen elkarte-mugimenduaren koordinazioa bultzatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten emakume-elkarteen sareak bultzatzea eta sortzea.
- Emakumeen presentzia sustatzea erabakiak hartzeko eremuan.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko deialdian emandako diru-laguntzen datuak honako hauek dira:

- Jasotako eskaerak: 112
- Emandako eskabideak: 101
- Erakunde mistoak izateagatik ukatutako eskaerak (ebazpenaren 1. artikulua): 2
- Erakunde onuradunak ez izateagatik ukatutako eskaerak (ebazpenaren 3.1 artikulua): 1
- Gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik ukatutako eskaerak (ebazpenaren 10.2 artikulua): 0
- Emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko eta/edo sentsibilizatzeko jarduerak sustatzeko deialdiko laguntza-lerrora bideratutako eskabideak (ebazpenaren 4.3 artikulua): 0
- Atzera egindako eskaerak: 8

Deialdi honen ebazpenak erakundeek diru-laguntza jasotzeko aurkeztzen duten proiektu bakoitzerako eskaera izendatzen du. Eskabide bakoitzak gehienez 2 proiektu har ditzake.

Prozesua amaitu gabe dagoela, % 75a ordaindu da, 300.000 euro, eta, justifikazio-memoria aurkezteko epea 2023ko martxoaren 01ean amaitu denez, emandako diru-laguntza guztia justifikatu ondoren ordainduko da gainerako % 25a, hau da, 100.000 euro.

Diru-laguntza jaso zuten erakundeek gutxi gorabehera 14.000 bazkide baino gehiago dituzte, eta horrek eragin handia du herritarrengan, bai elkarteetan parte hartu zuten emakumeengan, bai herritarrengan, oro har; izan ere, proiektu asko herritarrei irekita daude, eta beste askok emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzen laguntzen duten erabilera orokorreko baliabide publikoak sortzen dituzte.

Bizitzen ari den osasun-krisiak eragina izan du erakunde hauetan, eta, ondorioz, eskaeren kopurua % 18 jaitsi da, aurkeztzen ziren proiektuak aurrez aurrekoak direlako, horiek egoera normaltzen denean berreskuratuko dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Elkarteetara emandako diru-laguntzetako kopurua	100-140	101
Elkarteetara diruz lagundutako ekintza kopurua	100-140	127
Elkarteen gida-liburuaren gutzitza buruz diruz lagundutako elkarteak	%75	%45



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udal, kuadrilla eta mankomunitateentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak, eta/edo berdintasun-planak prestatu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko

2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2023ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena. Dirulaguntza horiek emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak prestatu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa emateko bideratuko dira.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Dirulaguntzaren deialdia egin eta arautzen duena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/12/2205754e.pdf>

Dirulaguntza ematen duena:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/ebazpena/ebazpena-2023ko-urriaren-16koa-emakunde-emakumearen-euskal-erakundearen-zuzendariarena-zeinaren-bidez-euskal-autonomia-erkidegoko-udalerriei-kuadrillei-eta-mankomunitateei-dirulaguntzak-ematen-baitzaizkie-2023-urtean-emakume-eta-gizonen-/arteko-berdintasunari-buruzko-diagnostikoak-egiteko-edo-berdintasunerako-planak-egin-eta-ebaluatzeko-behar-den-laguntza-teknikoa-ahalbideratzeko/webleg00-confich/eu/>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, kuadrillei, eta mankomunitateei behar den laguntza teknikoa ematea, 2023. urtean zehar emakumeek eta gizonen toki-eremuan duten egoeraren diagnostikoa egiteko eta/edo berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko.

Deialdi honetan lehentasuna ematen zaie berdintasunerako diagnostikoa eta/edo plana lehen aldiz egiten duten udalerrri, kuadrilla edo mankomunitateei, udalerrri guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak gara ditzaten. Era berean, lehentasuna ematen zaio mankomunitateka, kuadrillaka eta udalerrrika taldekatutako proiektuei, politika publikoek ahalmen handiagoa eta oihartzun handiagoa baitute haien ingurunean. Halaber, lehentasuna ematen zaio berdintasun-teknikariaren zuzeneko kontratazioari edo kontratua luzatzeari. Deialdiaren zenbatekoa bostehun mila (500.000) eurokoa da.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

53 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 13k ez dute laguntzarik jasoko, honako arrazoi hauengatik:

- 8 atzera egiteagatik edo deialdiak eskaturiko puntuazioa ez dutelako lortu.
- 5 aurrekontua agortzeagatik (ordezko gelditutakoak).

36 udalerriri eta 6 mankomunitateri eta kuadrillari dagozkien 42 laguntza eman ziren, guztira 500.000,00 euroko zenbatekoarekin. Emandako laguntzen ondorioz:

- 21 laguntza diagnostikoei, berdintasun-planei eta ebaluazioei dagozkie, eta horien artean:
 - o 5 lehen diagnostikoei eta berdintasun-planei dagozkie.
 - o 16 II., III., IV. edo V. diagnostikoak, berdintasun-planak eta/edo ebaluazioak egiteari dagozkie.

21 laguntza diagnostiko eta programa sektorialak egiteko dira. Diagnostiko eta programa horiei esker, emakumeen eta gizonen egoera ezagutu ahal izango da udalaren jarduera-eremuetan, eta premia zehatzetara hobeto egokitzen diren programak garatu ahal izango dira. Diruz lagundutako 21 proiektu horietatik, 9 genero-indarkeriaren arloko protokoloak edo planak egiteari edo ebaluatzeari dagozkie.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Udalerrri, kuadrilla, mankomunitate eta bi udalerrri baino gehiagoren multzoen zenbat proiekturi eman zaien dirulaguntza.	36	40
Biztanle gutxiko (5.000 biztanle baino gutxiago) zenbat udalerriri eman zaien dirulaguntza.	30	44 (*)

(*) 17 udalerrri 5.000 biztanle baino gutxiagokoak indibidualki + 6 mankomunitate, kuadrilla eta/edo udalerrri-multzo (27 udalerrri 5.000 biztanle baino gutxiagokoak).



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko

2.- Araua

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 14koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, 2023. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuei dirulaguntzak emateko deialdia egiten eta dirulaguntza horiek arautzen dira, aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatu ditzaten, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko, minimis laguntzen araubidea baliatuta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAn Hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205753e.shtml>

Diru laguntza emateko ebazpena: 2023ko urriaren 4an, eta EHAAn argitaratutako eguna: 2023ko azaroaren 22.

Ematea: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/11/2305242e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, enpresei eta erakunde pribatuei diru laguntzak ematen zaizkie, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, eta, horrela, laguntza teknikoa izan dezaten, enpresa edo erakunde pribatu horietan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko.

Programa honetako diru-hornidura berrehun mila eurokoa da (400.000,00 €).

Enpresak inplikatu nahi ditu programak, berdintasun-politikak ezar ditzaten enpresa barruan eta inguruarekin izaten dituzten harremanetan. Zehazki, legez behartuta ez dauden enpresei lagundu nahi zaie: laguntza teknikoa ematen zaie berdintasun-diagnostiko eta -plan bat egiteko, eta, gutxienez, hogeitau ordu eskaintzen zaizkie enpresetan berdintasunari buruzko sentsibilizazioa/prestakuntza emateko. Orobat, diru laguntza jasotzen duten enpresek konpromisoa sinatzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetzta-erakunde bihurtzeko, hau da, enpresetan dauden desberdintasunak gutxitzeko jarduera jarraituak egiteko: besteak beste, aukera-berdintasuna sustatzea langileak kontratatzerakoan eta langileen sustapen eta prestakuntzan; bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzeko neurriak ezartzea; sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurrea hartzea; enpresaren produktuetan berdintasuna sartzea eta abar.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

56 erakunde aurkeztu dira, eta deialdiaren irizpideak aplikatu ondoren, 51 eskatzaileri esleitu zitzaizkien dirulaguntza. Horietako bi baztertzeko arrazoiak ziren ez zituztela deialdiaren baldintzak betetzen, gehienak administrazio publikoaren kontrolpean zeudelako eta dirulaguntza beste helburu baterako eskatzen zuelako, hurrenez hurren. Beste bati ezezkoa eman zaio gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik, eta beste biri ezezkoa, deialdiaren xede ziren plantillak baino txikiagoak izateagatik. Gutxieneko puntuazioa gainditu zuten gainerako 48 erakundeei aurrekontua esleitu ondoren, bik uko egin zioten, ezarritako epean dirulaguntzaren helburuei erantzun ezin zitelako. Azkenik, 51 dira azkenean diruz lagundu direnak, baina aurrekontu-kreditua ez da agortu, eta gerakin gisa 154.306,62 euro geratu dira.

Dirulaguntza esleitu zaien erakundeen artean, 29 Bizkaikoak dira, 14 Gipuzkoakoak eta 8 Arabakoak. Jarduera-eremuari dagokionez, 35 erakunde zerbitzuen sektorekoak dira (10 esku-hartze sozialekoak, 9 hezkuntzakoak eta prestakuntzakoak, 4 garbiketakoak, 3 ingeniari eta teknologikoak, 2 garraiokoak eta gainerakoak beste esparru batzuetakoak), eta 8 industria-sektorekoak (5 erreminten eta piezen ekoizpenekoak, 2 eraikuntzakoak eta 1 metal eta soldadurakoak). Guztira, zifrak, diagnostikoak eta planak 1322 emakumeri eta 1192 gizoni (diruz lagundutako erakundeetan plantillako langileak) eta zeharka milaka gehiagori egin die mesede.

Diruz lagundutako erakunde guztiek jende askori ematen die zerbitzua, eta pentsatzekoa da berdintasun-plan horiek martxan jartzeak inpaktu biderkatzaile handia izango duela etorkizunean, bai eskaintutako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak lortzeko orduan dauden desorekak murrizteari dagokionez.

Kasu guztietan, honako hauek hartu dira kontuan: berdintasunari buruzko diagnostikoa eta plana egiteko aurkeztutako proposamenaren kalitatea, planak zenbati eragingo dien zuzenean, erakundeko pertsonen partaidetza-maila, jarduera-eremua, neurria, lurralde-ezarpenera eta dibertsitate-maila nolakoa den erakundeko langileen artean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako enpresen kopurua:	60 eta 80 artean	60 enpresa